

AITZINSOLASA

Bizilagun guztiek eta zehatzago, herri-erakunde finko eta zabal guztiak, udal bizitzako pertsona ireki eta protagonistetan bihurtzen diren.

Horretarako zenbait udal sail eta erakundeetan eta udalbatza Pleno eta lan batzordeetan bereziki, bizilagunen partaidetasunari era zabal eta eraginkorrean gorputza eman behar zaio.

Udalaren jesterioen beharrezko ardatzak lan batzorde eta erabaki talde errepresentagarrietik pasatu beharko dira, Udalbatza Plenotik noski.

AURREKO TITULUA

1. ARTIKULUA.- Errejimen Lokalaren oinariak arautzen duen Apirilak 2ko 7/1985 Legearen 5, 20 eta 69 artikuluetan azaltzen den gisa Korporazio Lokaleen autoorganizazio-gaitasunaren errekonozimenduaren arabera, Udaletxe honek honako erabaki eratzaille hau onartzen du.

I TITULUA - UDALETXEAREN ANTOLAMENDU KONSTITUZIONALA

2. ARTIKULUA.- Gobernu eta Udal Administrazioa Udaletxeari dagokio indarrean dagoen legearen arabera osatutako zinegotzi eta Alkate Jaunak osatu beharko dute.

3. ARTIKULUA.- Udaletxeak segidako organoen bidez erabiliko ditu bere gaitasunak:

3.1. Udal gobernuko organoak. Erabakitze ahalmenekin:

- a) Udalbatza Plenoa
- b) Alkatea
- d) Gobernu Batzordea, atribuzio ordezkaritzagatik
- e) Alkatea ordezkatuz Alkate-tenienteak ezartzen den ordenuaz eta ekintzen emaitzaz.

3.2. Organo osagarriak. Azterketa eta txosten eginkizunekin.

- a) Batzorde informatzaileak.

UDALBATZA PLENOARENA

4. ARTIKULUA.- Gestio eta erabaki organo gorena da. irekiak izango dira eta joaten den jendeak bere iritziak eman ditzake, Legeak esaten duenean ezik.

5. ARTIKULUA.- Hilero bilduko da eta Zinegotzien laurden batek hala eskatzen badu edo Alkatearen gogoz.

6. ARTIKULUA.- Egun finkoetan ospatuko da eta jende gehiena joan dedin ordu egokian.

7. ARTIKULUA.- bere bilkuratako eguneko aztergaiak deitu eta egitea Alkateari dagokio, 48 orduko gutxienezko aurrerapenez errejimen arruntean deituko dira. Une honetatik aurrera eztabaidatu beharrekoari buruzko dokumentazio guztia Korporaziokideen esku geratuz. Aparteko plenoan Alkateak deituko ditu, bere gogoz ala gutxienez zinegotzien laurden baten eskaerara.

Azken kasu horretan Plenoa formalki eskatu zen egunetik hasi eta astebeteko epe baruan ospatu beharko da.

Aparteko Plenoaren eskaera, idatziz eta dagokion dokumentazioa eman beharko da.

Aparteko Plenoko bilkura hauek larrialdi-izaera izan dezakete, Alkate jaunaren gogoz eta udal ordezkariak duten edozein alderdi politikoren gogoz. Kasu honetan ez da beharrezko izango 48 orduko epea errespetatzea Plenoa deitu eta ospakizunaren artean.

8. ARTIKULUA.- Udal plenoetan, bai ohizko, bai apatekoetan, legeak plenoan ematen dizkion gai propioak eztabaidatuko dira. Salbuespen bezala, lehendakariak beste gai batzuk sar ditzake, garrantzi orokor eta udalaren administrazioaren propioak juzkatzen duena eta beti bere Korporazioko zinegotzien laurden bat gutxienez eskatzen dutenean, Alkateari 2 egun aurkeztu beharrez.

Arau orokor bezala aztergaiak dagokion Batzorde Informatzailearen alde aurreko erabakia izan beharko dute. Era berean, Alkatearen edo bere kasuan Gobernu Batzordearen gaitasun diren gaiak Plenoetan bere zuzenketarako sar daitezke.

9. ARTIKULUA.- Plenoaren erabakiak Errejimen Lokaleko Oinarrien Lege berriaren arabera hartuko dira. Edozein gai Plenoaren gehiengo simplearen erabakiz Zinegotzi-Talde baten eskaeretara mahai gainean utz daiteke.



10. ARTIKULUA.- Eztabaidatu beharreko gaietan publikoaren partaidetasuna ordenatze arren, hauek, segidako eran arautuko liratekekk:

10.1. Mahai gainean eztabaidatzeari uzten dioetenean Lehendakari Jaunari parte hartzeko txanda eskatuko die.

10.2. Partaidetasuna bakarra izango da gai bakoitzean, gehi, erantzuteko eskuubidea, hau ere bakarra izanik.

ALKATEARENA

11. ARTIKULUA.- Alkatea Korporazioaren Lehendakari da, Gobernu Batzordearena eta Batzorde guztien Lehendakaria, jaun eta Udal erakundeen eta denetara ere, Errejimen Lokalarren Oinarrien Legearen 21 artikuluan ezarritako eginkizunak ditu.

12. ARTIKULUA.- Alkate Jaunak bere eginkizun guztiak (Errejimen Lokaleko Oinarrien Legearen 21.3. artikuluan daudenak ezik) Gobernu Batzordeen alde edo gainerako zinegotzien alde utz ditzake, azken kasu honetan modu bereziaz eta eginkizun jakinerako.

GOBERNU BATZORDEARENA

13. ARTIKULUA.- Gobernu Batzordea Alkateaz eta Zinegotzietz osatua izango da, beraien heren bat gainditzen ez dena Korporazioko Lehendakariak izendatu eta libreki apartatuko ditu.

Izendapen hori Alkatearen Dekretuaz egingo da, Plenoak ospatutako lehen bilkuran horren berri emanez.

14. ARTIKULUA.- Gobernu Batzordeari segidako eginkizunak dagozkie:

14.1. Alkateari bere eginkizunak betetzen lagundu

14.2. Alkateak uzten dizkion gaitasunak.

15. ARTIKULUA.- Alkateari bakarrik dagozkie Gobernu Batzordeari eman behar dizkion eginkizunak zein izango diren erabakitzea, Alkateak Udalbatza Plenoari gaitasunak ematearen dekretuaren berri emango dio.

16. ARTIKULUA.- Gobernu Batzordearen bilkurak astero ospatuko dira, aurrez Alkateak deituz eta dagokion eguneko aztergaia bidaliz, plenoa ospatzen den asteetan ezik.



17. ARTIKULUA.- Gobernu Batzordeak hartzen dituen ekintza eta erabakiak Udaletxeko Idazkariak fede publikoaren jardunean jasoko dituen aktetan ageriko dira.

18. ARTIKULUA.- Korporazioko Zinegotziak, Gobernu Batzordearen bilkuratako Eguneko Aztergaien agiria jasoko dute. Era berean, ahal den epe laburrean bilkuratako erabakiak izango dituen akta jasoko dute.

ALKATE-TENIENTEENA

19. ARTIKULUA.- Alkateak Dekretuz Alkate-Tenienteak izendatuko ditu, lehengotasun ordenu espezifikoki finkatuz.

20. ARTIKULUA.- Alkatea ez badago, kanpoan edo gaiso bada, alkatea ordezkatzea izango da. Alkate-tenieteen funtzioa, beti ere, izendapen ordenuari jarraiki. Horrez gain, Dekretu bidez zehaztuta, Alkateak berak emandako funtzioak bete ditzakete.

BATZORDE INFORMATZAILEENA

21. ARTIKULUA.- Errejimen Lokaleko Oinarrien Legearen 20. artikularen babesean sortutako Batzorde informatzaileek, Plenoaren eginkizun diren arazoak eztabaidatu, aztertu eta informatzeko funtzioa dute. Era berean, Alkateak, Gobernu Batzordeak eta Zinegotzi ordezkariak, bere esparruko gaiak, bere azterketara eta agindura eskupera ditzakete.

22. ARTIKULUA.- Orokorki, Batzorde informatzaileek bere arloko ziren gaiak eztabaidatuko dituzte, Udal Plenora edo Gobernu Batzordera pasa aurretik aurreko tramite gisa.

23. ARTIKULUA.- Udal gobernuaren organoan ekintzari buruzko erabaki eta informazioa dagokion Batzorde Informatzaileari adieraziko zaizkio, berak dagokion jarraipen eta kontrola egiteko.

24. ARTIKULUA.- Batzorde Informatzaileen lehendakaritza Alkateari dagokio bere atribuzioak erabiliz, bere Lehendakaritza edozein Zinegotziarengan utz daiteke dagokion Dekretuaz.

Batzorde Informatzaileak astero bilduko dira gutxienez.

Batzorde Informatzaileen bokalak Udalbatza Plenoak izendatuko ditu, talde bakoitzak duen

Zinegotzi-kopuruen arabera, kasu guztietan Korporazioa osatzen duten talde politiko guztien ordezkariak garantizatuz, gainera bertan parte hartu nahi duten bizilagunek ahal dute eta mandatariak izango dira.



Mandatarien partaidetasunean seriotasun piska bat garantizatzeko justifikatu gabeko zioengatik ez badira etortzen ezabatu egingo dira, elkarren segidako hiru bileratara edo hiru hilabetetan aldizkako bost bileratara.

25. ARTIKULUA.- Batzorde informatzaileen agindu eta txostenak, partaideen botuen gehiengoaz, bilera bakoitzetik hartutako erabakiak jasoko dituen akta bat egingo da, izaera eragilea izango ez duelarik, bertan eskatzen duen iritzia agerian gera daitekeelarik.

26. ARTIKULUA.- Batzorde informatzaileen kopurua udal ekintzaren arloen arabera izango da, oraingo segidako izenenkin funtzionatuz:

- HAZIENDA ETA ADMINISTRAZIOA
- HIRIGINTZA, LAN, UR, MENDI ETA INGURUGIROA
- ZERBITZUAK
- OSASUN, GIZARTE LAGUNTZA ETA KONTSUMOA
- KULTURA, HEZIKETA, EUSKARA ETA KIROLA

HIRI-PARTAIDETASUNA

27. ARTIKULUA.- Udaletxeko zinegotzien gehiengoak beharrezko derizkiona hiri-erakundeei eta bizilagunei behartua dago bati, asanbladak ospatuz eta udalarentzat garrantzitsuak diren bai arazo orokor bai partikularretan partaidetasuna erraztuko duen edozein bide erabiliz.

Era beran, Udaletxea hiri-erakunderen proposamenak aztertzeraz behartua dago. Horiek eskuperatu dituzten planteiamenduak gogoan izanik eta erakunde horiek ematen dituzten txosten teknikoak udal saileetatik etarritakoarekin kontrajarriz.

Udal administrazioak bizilagunen interes orokor eta sektorialeentzako erakunde eta elkargoen garapenari lagunduko dio, bere ekintzei buruzko informazioa emango eta, bere mugen barruan, bere helburuak egiteko bide publiko eta dirulaguntzen erabilpena.

Bizilagunen hastapen-eskubidea ezagutzen zaie, hau da, Udaletxeari gehigarri erabakiak onarpena proposatzeko eskubidea, berak arautzen duen heinean.

INFORMAZIOA

28. ARTIKULUA.- Bizilagunek Udaletxearen martxaz informazioa jasotzeko eskubidea dutenez urtero-urtero Udal Informazio Aldizkaria emango du argitara udalak, eta Batzorde Informatiboek aldian-aldian burutzen ari diren lanen berri emango dute.

Udaletxeak aldeztu aurretik bere bilkuratako eguneko aztergaiak ezagutarazi beharko ditu, onartutako erabaki guztiei zabalera emanez. Aurrekontu proiektua, planu, kontu-liburu, akta eta udal espedienteak kontsulterrazak eta libreak izan beharko dira.

Udaletxeak bizilagunei araudi lokalaren berri emango die eta bereziki, batzarkideei, horrela bere laguntza edo lan kritikoa erraztuz.



29. ARTIKULUA.- Alkateak, aldez aurretik Plenoaren gehiengo osoaren erabakiz eta Estaduko legegintzan edo bere kasuan gaitasuna duen Autonomi-Komunitatearen arabera, udal gaitasun eta herri izaerazko arazoak herri-kontsultapean jar ditzake, bizilagunen intereseentzako garrantzia handia dutenak Herri Haziendari buruzkoak ezik.

ERABAKI GEHIGARRIAK

1.- Barne-Araudiaren Proiektu horretan azaltzen ez diren gaiak, Errejimen Lokalaren Oinarrien Legean ezarritakoa baliozko izango da.

2.- Behin-behineko Araudi organiko hau onartu ondoren sei hilabeteen barruan Udaltza Plenoak bere erabateko onarpena hasido du.

